bata eta bestea zelulan etxolatuak
ilunabar denbora geldo baten bezala,
ene, beste ezerez bat, antzua, garratza,
Berarekin, nirekin, gu hirurokin,
Ura eta ontzia lez, bat bakarrik,
hitzaren ertz hilgarrian
eta odol berberaren hurbiltasunean
bere ixiltasun zuria berbiltzen duena. 300

ALELUIA, ALELUIA!

IZA la flor su enseña,
agua, en el prado.
¡Oh, qué mercadería
de olor alado!

¡Oh, qué mercadería
de tenue olor!
¡cómo inflama los aires
con su rubor!

¡Qué anegado de gritos
está el jardín!
“¡Yo, el heliotropo, yo!”
“¿Yo? El jazmín.”

310

Ay, pero el agua,
ay, si no huele a nada.

Tiene la noche un árbol
con frutos de ámbar;
tiene una tez la tierra,
ay, de esmeraldas.

LOREAK bere zutoihala goratzen du,
ura, larrean.

Oi, hori bai salgai
hegadun usainekoa!

Oi, hori bai salgai
Usain ahulekoa!
Zelan sutzen dituen aireak
Bere gorritasunarekin!

Zein urpeturik dagoen
oihuz lorategia!

310

“Ni, heliotropoa, ni!”
“Ni? Jasmina”.

Ene, baina urak,
ene, ez du ezeren usainik.

Gauak zuhaitz bat dauka
anbarezko fruituekin;
aurpegi bat dauka lurrak,
ene, esmeraldazkoa.

El tesón de la sangre
anda de rojo;
anda de añil el sueño;
la dicha, de oro.

320

Tiene el amor feroces
galgos morados;
pero también sus mieses,
también sus pájaros.

Ay, pero el agua,
ay, si no luce a nada.

Sabe a luz, a luz fría,
sí, la manzana.
¡Qué amanecida fruta
tan de mañana!

330

¡Qué anochecido sabes,
tú, sinsabor!
¡cómo pica en la entraña
tu picaflor!

Sabe la muerte a tierra,
la angustia a hiel.

Odolaren ekina 320
gorrizko dabil,
anilezko dabil ametsa;
zoriona, urrezko.

Maitasunak basati
xarlango moreak dauzka;
baina beren uztak ere ditu,
baita txoriak ere.

Ene, baina urak,
ene, ez du batere distirutzen.

Argiarena du, argi hotzarena, 330
bai, sagarrak zaporea.
Goizean goiz argitua
hain goizetik, fruitu hori!

Zelako gau zaporea daukazu,
zuk, mingostasun horrek!
Nola ziztatzen du heltsarrear
zure eulitxoriak!

Heriotzak lur gustua dauka,
larritasunak, gibelminarena.

Este morir a gotas
me sabe a miel.

340

Ay, pero el agua,
ay, si no sabe a nada.

[BAILE]

Pobrecilla del agua,
ay, que no tiene nada,
ay, amor, que se ahoga,
ay, en un vaso de agua.

Tantaka hiltze honek
ezti zaporea ematen dit.

340

Ene, baina urak,
ene, ez dauka inolako gusturik.

[DANTZA]

Gaixoa ura,
ene, deusik ere ez baitauka,
ene, maitasuna, itotzen baita
ene, ur putzu txiki batean.

EN EL RIGOR del vaso que la aclara,
el agua toma forma
–ciertamente. 350

Trae una sed de siglos en los belfos,
una sed fría, en punta, que ara cauces
en el sueño moroso de la tierra,
que perfora sus miembros florecidos,
como una sangre cáustica,
incendiándolos, ay, abriendo en ellos
desapacibles úlceras de insomnio.
Más amor que sed; más que amor, idolatría,
dispersión de criatura estupefacta
ante el fulgor que blande 360

–germen del trueno olímpico– la forma
en sus netos contornos fascinados.
¡Idolatría, sí, idolatría!
Mas no le basta el ser un puro salmo,
un ardoroso incienso de sonido;
quiere, además, oírse.
Ni le basta tener sólo reflejos
–briznas de espuma
para el ala de luz que en ella anida;
quiere, además, un tálamo de sombra, 370

BERA ARGITZEN DUEN ontziaren zehaztasunean
urak eitea hartzen du
–benetan. 350

Musturretan dakar mendetako egarri bat,
egarri hotz bat, puntazorrotza, lurraren lo geldoan
ubideak goldatzen dituenena,
odol kaustiko bat bezala
beren lohadar loratuak zulatzen dituenena,
sua emanda, ene, haietan irekiz
logabezia-ultzera ezatseginak.
Egarria baino gehiago, maitasuna; idolatria, maitasuna
baino gehiago,
izaki txundituaren banakuntza
eiteak astintzen duen distiraren aurrean 360

–trumoi olinpikoaren jatorria–
beren inguramen liluratu garbietan.
Idolatria, bai, idolatria!
Baina ez du aski salmo txukun bat izatea,
zaratadun intsentsu gartsu bat;
nahi du, gainera, bere burua entzun.
Baita ere ez du aski isladak bakarrik edukitzea
–bits-izpiak
berean habia egiten duen argizko hegoarentzat;
nahi du, gainera, geriza-talamo bat, 370

un ojo,
para mirar el ojo que la mira.
En el lago, en la charca, en el estanque,
en la entumida cuenca de la mano,
se consuma este rito de eslabones,
este enlace diabólico
que encadena el amor a su pecado.
En el nítido rostro sin facciones
el agua, poseída,
siente cuajar la máscara de espejos 380
que el dibujo del vaso le procura.
Ha encontrado, por fin,
en su correr sonámbulo,
una bella, puntual fisonomía.
Ya puede estar de pie frente a las cosas.
Ya es, ella también, aunque por arte
de estas limpias metáforas cruzadas,
un encendido vaso de figuras.
El camino, la barda, los castaños,
para durar el tiempo de una muerte 390
gratuita y prematura, pero bella,
ingresan por su impulso
en el suplicio de la imagen propia
y en medio del jardín, bajo las nubes,
descarnada lección de poesía,
instalan un infierno alucinante.

begi bat,
berari begira dagoen begia ikusteko.
Lakuan, idoian, urtegian,
esku-zulo zurminduan,
katebegi-ohikune hau betetzen da,
lotune deabruzko hau
maitasuna bere bekatuan kateatzen duena.
Mustupilik gabeko aurpegi aratzean,
urak, deabraturik,
ontziaren marrazkiak ematen dion 380
ispiluzko maskara mamintzen sentitzen du.
Aurkitu du, azkenean,
bere arinka sonanbuluan,
fisionomia polit, zehatz bat.
Egon liteke dagoeneko gauzen aurrean zutik.
Bera ere bada, jadanik, nahiz eta
metafora garbi kordatu hauengatik izan,
irudi-ontzi sutu bat.
Bidea, hesia, gaztainondoak,
heriotza funtsik gabe eta sasoi-aurreko, 390
baina eder baten denbora irauteko,
bere kabuz sartzen dira
bere irudiaren oinazean
eta lorategiaren erdian, hodeipean,
poesia-ikasbide gordina,
infernu erogarri bat jartzen dute.

PERO EL VASO en sí mismo no se cumple.

Imagen de una deserción nefasta
¿qué esconde en su rigor inhabitado,
sino esta triste claridad a ciegas,
sino esta tentaleante lucidez?

400

Tenedlo ahí, sobre la mesa, inútil.
Epigrama de espuma que se espiga
ante un auditorio anestesiado,
incisivo clamor que la sordera
tenaz de los objetos amordaza,
flor mineral que se abre para adentro
hacia su propia luz,
espejo ególatra

que se absorbe a sí mismo contemplándose.

410

Hay algo en él, no obstante, acaso un alma,
el instinto augural de las arenas,
una llaga tal vez que debe al fuego,
en donde le atosiga su vacío.

Desde este erial aspira a ser colmado.

En el agua, en el vino, en el aceite,
articula el guión de su deseo;
se ablanda, se adelgaza;

BAINA ONTZIA bera ez da gauzatzen.
Zoritxarreko desertzio baten irudia,
zer ezkutatzen du bere zehaztasun hutsean,
hauxe itsuka dabilen argitasun tristea baino, 400
haztamuka dabilen argikusmen hau baizik?
Edukazue hor, gauzaez, mahai gainean.
Entzuleria anesthesiatu baten aurrean
aletzen den bitsezko epigrama,
gauzakien gortasun euskorrek
bozaten duen aldarri zorrotza,
lore minerala barrurantz zabaltzen dena
bere argirantz,
ispilu buruzalea
bere buruari begizatzen zurgatu egiten dena. 410
Zerbait dago bere baitan, hala ere, agian arima bat,
hondarren olde augurala,
beharbada suari zor dion zauri bat,
non bere hutsuneak orbantzen duen.
Eremu honetatik asebetetzea irrikatzen du.
Urean, ardoan, olioan,
bere gogoaren gidoia eratzen du,
bigundu egiten da, argaldu,

ya su sobrio dibujo se le nubla,
ya, embozado en el giro de un reflejo,
en un llanto de luces se liquida.

420

dagoeneko bere marrazki urria lainotzen zaio,
jadanik irla baten biratzean mozorroturik, 420
argi-negar batean urtzen da.

MAS LA FORMA en sí misma no se cumple.

Desde su insigne trono faraónico,

magnánima,

deífica,

constelada de epítetos esdrújulos,

rige con hosca mano de diamante.

Está orgullosa de su orondo imperio.

¿En las augustas pituitarias de ónice

no juega, acaso, el encendido aroma

430

con que arde a sus pies la poesía?

¡Ilusión, nada más, gentil narcótico

que puebla de fantasmas los sentidos!

Pues desde ahí donde el dolor emite

¡oh turbio sol de podre!

el esmerado brillo que lo embosca,

ay, desde ahí, presume la materia

que apenas cuaja su dibujo estricto

y ya es un jardín de huellas fósiles,

estruendoso fanal,

440

rojo timbre de alarma en los cruceros

que gobierna la ruta hacia otras formas.

La rosa edad que esmalta su epidermis

BAINA EITEA bera ez da egikaritzen.
Bere jargoi faraoniko ospetsutik,
bihotz handiz,
jainkozkoa,
epiteto esdrujuloz izarreztaturik
diamantezko esku zakarrarekin agintzen du.
Harro dago bere inperio apatzagatik.
Sardonizezko pituitario ospetsuetan
ez ote da jolasten poesia 430
beren oinpeetan erretzen duen lurrin piztuarekin?
Irudipena, besterik ez, narkotiko adeitsua
zentzumenak mamarruz betetzen dituena!
Bada hortik non minak bera barrandatzen duen,
oi usteldurazko eguzki uherra!
distira arretatsua zabaltzen duenetik,
ene, hortxe bertatik, materiak susmatzen du
bere irudi hertsia nekez gatzatzen dela
eta orduan bada herexa fosilen lorategi bat,
argiontzi zalapartatsua, 440
beste eite batzuetara bidea zuzentzen duen
gurutzaguneetan alarma-txirrin gorria.
Bere epidermisa nabartzen duen arrosa-adina

—senil recién nacida—

envejece por dentro a grandes siglos.

Trajo puesta la proa a lo amarillo.

El aire se coagula entre sus poros

como un sudor profuso

que se anticipa a destilar en ellos

una esencia de rosas subterráneas.

450

Los crudos garfios de su muerte suben,

como musgo, por grietas inasibles,

ay, la hostigan con tenues mordeduras

y abren hueco por fin a aquel minuto

—¡miradlo en la lenteja del reloj,

neto, puntual, exacto,

correrse un eslabón cada minuto!—

cuando al soplo infantil de un parpadeo,

la egregia masa de ademán ilustre

podrá caer de golpe hecha cenizas.

460

NO OBSTANTE —¿por qué no?— también en ella
tiene un rincón el sueño,

árido paraíso sin manzana

donde suele escaparse de su rostro,

por el rostro marchito del espectro

que engendra, aletargada, su costilla.

–jaino berri zaharkina–
mende handika barrutik zahartzen da.
Branka zekarkion horirantz arteztuta.
Airea beren poroen artean mamitzen da
izerdi ugari bat bezala
lurrazpiko larrosen esentzia bat
euretan distilatzera aurreratzen dena. 450
Bere heriotzaren mako gordinek igo egiten dute,
goroldioak lez, arrakala eustezinetatik,
ene, haginkada ahulekin zirikatzen dute
eta azkenean minutu hari lekunea zabaltzen diote
–ikus ezazue erlojuaren dilistan,
garbi, garaiz, zehatz,
minutu bakoitzean begizta bat limurtzen–
betikara baten ume-putzaz
keinu handizko ore ospetsua
ukaldi batez errauts eginda erori litekeenean. 460

HALA ERE –zergatik ez?– bere baitan ere
badauka ametsak bazter bat,
sagarrik gabeko paradisu idorra
non ihes egiten duen bere aurpegitik,
espektroaren aurpegi zimeletik zehar,
bere sailhetsa, letargiatua, sortzen duena.

El vaso de agua es el momento justo.
En su audaz evasión se transfigura,
tuerce la órbita de su destino
y se arrastra en secreto hacia lo informe. 470

La rapiña del tacto no se ceba
—aquí, en el sueño inhóspito—
sobre el templado nácar de su vientre,
ni la flauta Don Juan que la requiebra
musita su cachonda serenata.

El sueño es cruel,
ay, punza, roe, quema, sangra, duele.
Tanto ignora infusiones como unguentos.
En los sordos martillos que la afligen
la forma da en el gozo de la llaga 480
y el oscuro deleite del colapso.

Temprana madre de esa muerte niña
que nutre en sus escombros paulatinos,
anhela que se hundan sus cimientos
bajo sus plantas, ay, entorpecidas
por una espesa lentitud de lodo;
oye nacer el trueno del derrumbe;
siente que su materia se derrama
en un prurito de ácidas hormigas;
que, ya sin peso, flota 490
y en un claro silencio se deslíe.

Ur ontzia une zehatza da.

Bere ihesa ausartean antzaldatu egiten da,
bere halabeharraren orbita okertzen du
eta sekretuz narras doa eragabetasunerantz. 470

Ukimenaren arpilaketa ez da amorratzen
–hemen, amets latzean–
bere sabelaren nakar baretuaren gainean,
ez eta bera lausengatzen duen Don Juan xirulak
ez du xuxurlatzen bere serenata lizunkoia.

Ametsa ankerra da,
ene, ziztatu, karraskatu, erre, odola atera, min ematen du.
Ez ditu ezagutzen ez infusioak ez gantzukiak.

Bera nahigabetzen duten mailu gorretan
eiteak jotzen du zauriaren pozean 480
eta kolapsoaren atsegin ilunean.

Goiztiar ama haur-heriotza horrena
beren apurka-hondakinetan janaritzen duena,
nahi du beren oinarriak hondoratzea
beren oinen azpian, ai ene,
basazko neke lodi batek motelduak;
erroiztearen trumoia jaiotzen entzuten du;
bere mamia txingurri garratzen
hazgale batean isurtzen dela sentitzen du;
dagoeneko, pisurik gabe, flotatzen 490
eta ixiltasun argi baten desegiten ari dena.

Jose Gorostiza

Por un aire de espejos inminentes
¡oh impalpables derrotas del delirio!
cruza entonces, a velas desgarradas,
la airosa teoría de una nube.

Ispilu gertuen aire batetik zehar,
oi liluraren porrot ukiezinak!
Zeharkatzen du orduan, belak urratuz,
Hodei baten teoria haizetsua.

EN LA RED de cristal que la estrangula,
el agua toma forma,
la bebe, sí, en el módulo del vaso,
para que éste también se transfigure
con el temblor del agua estrangulada
que sigue allí, sin voz, marcando el pulso
glacial de la corriente.

500

Pero el vaso

—a su vez—

cede a la informe condición del agua
a fin de que —a su vez— la forma misma,
la forma en sí, que está en el duro vaso
sosteniendo el rencor de su dureza
y está en el agua de agujijada espuma
como presagio cierto de reposo,
se pueda sustraer al vaso de agua;
un instante, no más,
no más que el mínimo
perpetuo instante del quebranto,
cuando la forma en sí, la pura forma,
se abandona al designio de su muerte
y se deja arrastrar, nubes arriba,

510

BERA ITOTZEN DUEN kristalezko sarean,
ura eratu egiten da,
edan egiten du, bai, ontziaren moduluan,
hauxe ere antzalda dadin
ur iratoaren dardakadarekin 500
bertan jarraitzen duena, ahots barik, jaiduraren
pultsu izoztua marratzen.
Baina ontziak
–bere aldiz–
uraren itxurabako izateari amore ematen dio,
eite bera –bere aldiz–
eite berbera, ontzi gogorrean dagoena
bere gogortasunaren gorrotoa bermatzen
eta ezten-apardun urean dagoena
benetako atsedenen aurre-zantzua bezala 510
ur ontziari kendu didan;
aldiune bat, ez gehiago,
ez besterik atsekabearen
une amaibako gutxiena baino,
eite berbera, eite hutsa,
bere heriotzaren gogoari amore ematen dionean
eta narrasten uzten dio, hodeiez gora,

por ese atormentado remolino
en que los seres todos se repliegan
hacia el sopor primero,
a construir el escenario de la nada.
Las estrellas entonces ennegrecen.
Han vuelto el dardo insomne
a la noche perfecta de su aljaba.

520

PORQUE en el lento instante del quebranto,
cuando los seres todos se repliegan
hacia el sopor primero
y en la pira arrogante de la forma
se abrasan, consumidos por su muerte
—¡ay, ojos, dedos, labios,
etéreas llamas del atroz incendio!—
el hombre ahoga con sus manos mismas,
en un negro sabor de tierra amarga,
los himnos claros y los roncros trenos
con que cantaba la belleza,
entre tambores de gangoso idioma
y esbeltos címbalos que dan al aire
sus golondrinas de latón agudo;
ay, los trenos e himnos que loaban
la rosa marinera

530

540

zurrunbilo nahigabetsu horri
non izaki guztiek ematen duten
lehen logurarantz, 520
ezerezaren antzeztokia eraikitza.
Orduan izarrak belztu egiten dira.
Azkon logabea bihurtu dute
bere buirakaren gau osabetera.

ZEREN atsekabearen une nekezean,
izaki guztiek lehen logurarantz
ematen dutenean
eta eitearen sutzar harroputzean
erretzen direnean, bere heriotzak suntsiturik
–ene, begiak, atzamarrak, ezpainak, 530
sualdi zakarraren gar etereoak!–
gizakiak bere eskuekin itotzen ditu,
lur mingotsezko zapore beltz baten,
gorazarre argiak eta treno erlatsak
zeinekin edertasunak abesten zuen,
kinkun-hizkuntzadun danborren artean
eta aireari beren letoi zorrotzezko enarak
ematen duten txilintxa lirainak;
ai ene, trenoak eta gorazarreak arrosa marinela
aintzatzen zutenak, 540

que consuma el periplo del jardín
con sus velas henchidas de fragancia;
y el malsano crepúsculo de herrumbre,
amapola del aire lacerado
que se pincha en las púas de un gorjeo;
y la febril estrella, lis de calosfrío,
punto sobre las íes
de las tinieblas;
y el rojo cáliz del pezón macizo,
sola flor de granado
en la cima angustiosa del deseo,
y la mandrágora del sueño amigo
que crece en los escombros cotidianos
—ay, todo el esplendor de la belleza
y el bello amor que la concierta toda
en un orbe de imanes arrobados.

550

PORQUE el tambor rotundo
y las ricas bengalas que los címbalos
tremolan en la altura de los cantos,
se anegan, ay, en un sabor de tierra amarga,
cuando el hombre descubre en sus silencios
que su hermoso lenguaje se le agosta,
se le quema —confuso— en la garganta,

560

beren urrinez betetako belekin
lorategiaren itzulia burutzen duen hori;
eta uger-ilunsenti erigarria,
airearen mitxoleta zigorkatua
txorrotxio baten izpitan ziztatzen dena;
eta izar sukartia, hotzikaradun lislorea,
ilunpeen
ien gainean puntua;
eta titiburu trinkoaren kaliza gorria,
mingranalore bakarra
gogoaren tontor larritsuan
eta amets adiskidearen urriloa
eguneroko hondakinetan hazten dena
–ene, edertasunaren ospe guztia
eta maitasun ederra, bera osorik adosten duena,
iman-estasiatzko lurbira batean.

550

ZEREN erabateko danborra
eta abestien garaieran
txilintxek dardarikatzen dituzten bengala aberatsak
gainez doaz, ene, lur mingots zapore batean,
gizakiak aurkitzen duenean, beren ixiltasunetan,
bere hizkuntza ederra idortu egiten zaiola,
eztarran –nahasi– erretzen zaiola,

560

exhausto de sentido;
ay, su aéreo lenguaje de colores,
que así se jacta del matiz estricto
en el humo aterrado de sus sienas
o en el sol de sus tibios bermellones;
él, que discurre en la ansiedad del labio
como una lenta rosa enamorada; 570
él, que cincela sus celos de paloma
y modula sus látigos feroces;
que salta en sus caídas
con un ruidoso síncope de espumas;
que prolonga el insomnio de su brasa
en las mustias cenizas del oído;
que oscuramente repta
e hinca enfurecido la palabra
de hiel, la tuerta frase de ponzoña;
él, que labra el amor del sacrificio 580
en columnas de ritmos espirales,
sí, todo él, lenguaje audaz del hombre,
se le ahoga –confuso– en la garganta
y de su gracia original no queda
sino el horror de un pozo desecado
que sostiene su mueca de agonía.

zentzuz akiturik;
ai ene, bere airezko hizkuntza koloreduna,
karantza hertsiaz horrela harrotzen dena
beren nabar izutuen kean
edo beren bermiloi epelen eguzkian;
hura, ezpainaren irrikan ibiltzen dena
larrosa maitemindu geldo bat bezala; 570
beren uso zeloak zizelatu
eta beren zigor ankerrak modulatzan dituen hura;
beren erortzeetan jauzi egiten duena
bitsezko zorabio zaratatsu batekin,
bere txingarraren loezina luzatzen duena
entzumenaren errauts goibeletan;
ilunki narras dabilena
eta suminduta, kedar-hitza,
pozoi-esakune betokerra, sartzen duena;
hura, eskaintzaren maitasuna lantzen dutenak 580
kiribil erritmoko zutabeetan,
bai, den-dena, gizakiaren hizkuntza ausartia den hura,
itotzen zaio –nahasi– eztarrian
eta bere dohain jatorrizkotik ez da geratzen
bere hil-urren keinua eusten dion
osin agortu baten izua baino.

PORQUE el hombre descubre en sus silencios
que su hermoso lenguaje se le agosta
en el minuto mismo del quebranto,
cuando los peces todos 590
que en cautelosas órbitas discurren
como estrellas de escamas, diminutas,
por la entumida noche submarina,
cuando los peces todos
y el ulises salmón de los regresos
y el delfín apolíneo, pez de dioses,
deshacen su camino hacia las algas;
cuando el tigre que huella
la castidad del musgo
con secretas pisadas de resorte 600
y el bóreas de los ciervos presurosos
y el cordero Luis XV, gemebundo,
y el león babilónico
que añora el alabastro de los frisos
—¡flores de sangre, eternas,
en el racimo inmemorial de las especies!—
cuando todos inician el regreso
a sus mudos letargos vegetales;
cuando la aguda alondra se deslía
en el agua del alba, 610
mientras las aves todas

ZEREN gizakiak aurkitzen du beren ixiltasunetan
bere hizkuntza ederra idortu egiten zaiola
atsekabearen minutuan bertan,
noiz eta arrain guztiek 590
birabide arretatsuetan dabiltzanek
izarrezko ezkatak bezala, txikerrak,
itsaspeko gau malgorretik,
noiz eta arrain guztiek
eta itzulien izokin ulisesek
eta izurde apolineoek, jainkoen arrain horiek,
beraien bidea auketetarantz desegiten baitute;
noiz eta goroldioaren kastitatea
oinkatzen duen tigrea
malguki zapaltze sekretuekin 600
eta orein lasterren ipar-haizea
eta Luis XV.a bildotsa, zotinka,
eta lehoi babilonikoa
erlaizpeen hartzuria mineriz oroitzen duena
–odolezko loreak, betierekoak,
espezien mordo sekuladanikoan!–
noiz eta denek itzultzeari ekiten baitiote
beraien landare-letargia mutuetara;
noiz eta hegazabal zorrotza urtzen den
egunsentiaren uretan, 610
bitartean hegazti guztiak

y el solitario búho que medita
con su antifaz de fósforo en la sombra,
la golondrina de escritura hebrea
y el pequeño gorrión, hambre en la nieve,
mientras todas las aves se disipan
en la noche enroscada del reptil;
cuando todo –por fin– lo que anda o reptaba
y todo lo que vuela o nada, todo,
se encoge en un crujir de mariposas,
regresa a sus orígenes
y al origen fatal de sus orígenes,
hasta que su eco mismo se reinstala
en el primer silencio tenebroso.

620

PORQUE los bellos seres que transitan
por el sopor añoso de la tierra
–¡trasgos de sangre, libres,
en la pantalla de su sueño impuro!–
todos se dan a un frenesí de muerte,
ay, cuando el sauce
acumula su llanto
para urdir la substancia de un delirio
en que –¡tú! ¡yo! ¡nosotros!– de repente,
a fuerza de atar nombres destemplados,

630

eta gerizpean bere fosforozko mozorroarekin
gogoetatzen dagoen hontz bakartia,
hebraitar idazkeradun enara
eta txolarre txikia, elurretan gose,
hegazti guztiak, narrastiaren gau karabilkatuan,
uxatzen diren bitartean;
noiz eta –azkenean– oinez edo tatarrez dabilen dena
eta hegaz edo igeri egiten duen guztia, dena,
uzkurtzen da tximeleta-karraskatze baten, 620
beren jatorrietara itzultzen da
eta beren jatorrien jatorri halabeharrekora,
bere oihartzun bera, lehenengo ixilune itzalean,
berriro jarri arte.

ZEREN hurraren lozorro urtetsuan zehar
dabiltzan izaki ederrak
–odolezko iratxoak, askeak,
bere amets ezpuruaren pantailan!–
denek heriozko eroaldi bati ematen diote,
ene, zumeak bere negarra 630
metatzen duenean
eldarnio baten substantzia irazkitzeko
non –zu! ni! gu!– bat-batean,
izen zakarrak, loturaren indarrez,

ay, no le queda sino el tronco prieto,
desnudo de oración ante su estrella;
cuando con él, desnudos, se sonrojan
el álamo temblón de encanecida barba
y el eucalipto rumoroso,
témpano de follaje
y tornillo sin fin de la estatura
que se pierde en las nubes, persiguiéndose;
y también el cerezo y el durazno
en su loca efusión de adolescentes
y la angustia espantosa de la ceiba
y todo cuanto nace de raíces,
desde el heroico roble
hasta la impúbera
menta de boca helada;
cuando las plantas de sumisas plantas
retiran el ramaje presuntuoso,
se esconden en sus ásperas raíces
y en la acerba raíz de sus raíces
y presas de un absurdo crecimiento
se desarrollan hacia la semilla,
hasta quedar inmóviles
¡oh cementerios de talladas rosas!
en los duros jardines de la piedra.

640

650

ai ene, ez zaio geratzen enbor nabarra baizik,
bere izarraren aurrean otoitz gabeturik;
noiz eta berarekin, biluzik, lotsaz gorritzen dira
bizar zuridun zurzuri dardaratsua
eta eukalipto marmaratsua,
hostozko horma-puska 640
eta garaieraren torloju amaibakoa,
bere buruari jarraiki, hodeietan galtzen dena;
baita ere gereziondoa eta preskua
beraien nerabe-isurpen zoroetan
eta zeibaren larritasun izugarria
eta sustraietatik ernetzen den dena,
haritz heroikotik
aho izoztuzko
menda-belar umeraino;
noiz eta landare manukorren eustazpiek 650
adakera farfaila alboratzen baitute,
beren sustraietan ezkututzen dira
eta beren sustraien sustrai garratzean
eta taxugabe hazkunde batek harturik
hazirantz hedatzen dira
geldi geratu arte,
oi larrosa landudun hilerriak!
harriaren lorategi gogorretan.

PORQUE desde el anciano roble heroico
hasta la impúbera 660
menta de boca helada,
ay, todo cuanto nace de raíces
establece sus tallos paralíticos
en los duros jardines de la piedra,
cuando el rubí de angélicos melindres
y el diamante iracundo
que fulmina a la luz con un reflejo,
más el ario zafir de ojos azules
y la geórgica esmeralda que se anega
en el abril de su robusta clorofila, 670
una a una, las piedras delirantes,
con sus lindas hermanas cenicientas,
turquesa, lapislázuli, alabastro,
pero también el oro prisionero
y la plata de lengua fidedigna,
ingenuo ruseñor de los metales
que se ahoga en el agua de su canto;
cuando las piedras finas
y los metales exquisitos, todos,
regresan a sus nidos subterráneos 680
por las rutas candentes de la llama,
ay, ciegos de su lustre,
ay, ciegos de su ojo,

ZEREN haritz zahar heroikotik

aho izoztuzko 660

menda umeraino,

ene, sustraietatik ernetzen den guztiak

beren zurtoin ilaunak ipintzen ditu

harriaren lorategi gogorretan,

noiz eta aingeru-mizkeriadun errubia

eta diamante suminkorra

islada batekin argia ezeztatzen duena,

eta gainera begi urdindun zafiro ariarra

eta esmeralda georgiarra bere klorofila sendoaren apirilean

urez betetzen dena, 670

banan-banan, harri eldarniagarriak,

beren ahizpa hausgara politekin,

turkesa, lapislazulia, alabastroa,

baina baita ere urre espea

eta mihi sinesgarridun zilarra,

metalen urretxindor xaloa

bere abestiaren uretan itotzen dena;

noiz eta harri bitxiak

eta metal apainak, denak,

itzultzen baitira beren lur azpiko habietara, 680

garraren bidatz gorien zehar,

ene, bere ospeaz itsutuak,

ene, bere begiaz itsuturik,

que el ojo mismo,
como un siniestro pájaro de humo,
en su aterida combustión se arranca.

PORQUE raro metal o piedra rara,
así como la roca escueta, lisa,
que figura castillos
con sólo naipes de aridez y escarcha, 690
y así la arena de arrugados pechos
y el humus maternal de entraña tibia,
ay, todo se consume
con un mohíno crepitar de gozo,
cuando la forma en sí, la forma pura,
se entrega a la delicia de su muerte
y en su sed de agotarla a grandes luces
apura en una llama
el aceite ritual de los sentidos,
que sin labios, sin dedos, sin retinas, 700
sí, paso a paso, muerte a muerte, locos,
se acogen a sus túmidas matrices,
mientras unos a otros se devoran
al animal, la planta
a la planta, la piedra
a la piedra, el fuego

begi berberak
ketxori makur bat bezala
bere errekontza sorgortuan erauzten baitu.

ZEREN metal urria edo harri bitxia,
haitz hutsaz, leunaz,
gatzeluen antza ematen duena
lehortasun eta izotzezko kartekin bakarrik 690
eta horrela bular tximurrezko hondarra
eta haltsar epeldun amatiar humusa,
ene, dena suntsitzen da
atsegin txinpartatze muzin batekin,
eite berbera, eite hutsa,
bere heriotzaren laketari amore ematen dionean
eta hura argi handika higatzeko bere lehian
sugar batean endurtzen du
zentzumenen olio errituala,
ezpainik gabe, atzamarrrik gabe, betsarerik gabe, 700
bai, urratsez urrats, heriotzaz heriotza, zoraturik,
beraien emasabel malgortuetara lotzen dira,
batzuek besteak irensten dituzten bitartean,
animalia, landareak
landarea, harriak
harria, suak

al fuego, el mar
al mar, la nube
a la nube, el sol
hasta que todo este fecundo río 710
de enamorado semen que conjuga,
inaccesible al tedio,
el suntuoso caudal de su apetito,
no desemboca en sus entrañas mismas,
en el acre silencio de sus fuentes,
entre un fulgor de soles emboscados,
en donde nada es ni nada está,
donde el sueño no duele,
donde nada ni nadie, nunca, está muriendo
y solo ya, sobre las grandes aguas, 720
flota el Espíritu de Dios que gime
con un llanto más llanto aún que el llanto,
como si herido –¡ay, Él también!– por un cabello,
por el ojo en almendra de esa muerte
que emana de su boca,
hubiese al fin ahogado su palabra sangrienta.
¡ALELUYA, ALELUYA!

sua, itsasoak
itsasoa, hodeiak
hodeia, eguzkiak
harik eta maiteminduzko semen 710
ibai emankor oso hori
bere gurariaren erreka apaintsua konjugatzen duena,
aspertuezina,
beraien haltsar berberetara joaten ez den arte,
beraien iturrien ixiltasun garratzera,
eguzki enbuskatuzko distira baten artean,
non ezer ez den eta ezer ez dagoen,
non ametsak minik ez duen ematen,
non eta ezer, inor, inoiz, ez dagoen hiltzen
eta bakarrik jadanik, ur handien gainean, 720
flotatzen du Jaungoikoaren Izpirituak,
negarra baino are negarrago den negar batekin intzirika,
behin zauriturik –ene, Hura ere bai– ile batek,
arbendol itxurako heriotza horren begi batek,
bere ahotik datorrena,
bere hitz odoltsua, azkenean, ito balu bezala.
ALELUIA, ALELUIA!

¡TAN-TAN! ¿Quién es? Es el Diablo,
es una espesa fatiga,
un ansia de trasponer
estas lindes enemigas,
este morir incesante,
tenaz, esta muerte viva,
¡oh Dios! que te está matando
en tus hechuras estrictas,
en las rosas y en las piedras,
en las estrellas ariscas
y en la carne que se gasta
como una hoguera encendida,
por el canto, por el sueño,
por el color de la vista.

730

740

¡Tan-tan! ¿Quién es? Es el Diablo,
ay, una ciega alegría,
un hambre de consumir
el aire que se respira,
la boca, el ojo, la mano;
estas pungentes cosquillas
de disfrutarnos enteros

KAX-KAX! Nor da? Deabrua da,
neke lodi bat da,
egarri bat, gainditzeko 730
muga etsai hauek,
hiltze amaibako hau,
eutsia, heriotza bizi hau,
oi Jauna! zeu hiltzen ari dena
zeure egitura zehatzetan,
larrosetan eta harrietan,
izar izuetan
eta sutzar piztu bat bezala
higatzen den haragian,
abestiagatik, ametsagatik, 740
ikusmenaren koloreagatik.

Kax-kax! Nor da? Deabrua da,
ene, poztasun itsu bat,
arnasten den airea
suntsitzeko gose bat,
ahoa, begia, eskua;
geure burua osorik gozatzeko,
barre zartada bakar baten,

en sólo un golpe de risa,
ay, esta muerte insultante,
procaz, que nos asesina
a distancia, desde el gusto
que tomamos en morirla,
por una taza de té,
por una apenas caricia.

750

¡Tan-tan! ¿Quién es? Es el Diablo,
es una muerte de hormigas
incansables, que pululan
¡oh Dios! sobre tus astillas,
que acaso te han muerto allá,
siglos de edades arriba,
sin advertirlo nosotros,
migajas, borra, cenizas
de ti, que sigues presente
como una estrella mentida
por su sola luz, por una
luz sin estrella, vacía,
que llega al mundo escondiendo
su catástrofe infinita.

760

[BAILE]

kilika puntadun hauek,
ene, heriotza laidogarri hau, 750
ozarra, urrundik
hiltzen gaituena, bera hiltzen
hartzen dugun atseginetik
te kikara bategatik
ozta fereka bategatik.

Kax-kax! Nor da? Deabrua da,
txingurri nekaezinen heriotza bat da,
ugari dabiltzanak,
oi Jauna!, zeure zozpaletan,
ausaz han hil zaituztenak, 760
adin mendeetatik gora,
gu ohartu barik,
hondakin, jalkin, errauts zeureak,
aurrean jarraitzen duzun hori,
izar ukatu bat bezala,
bere argi bakarragatik,
izarbako argi bategatik, hutsik,
bere hondamen mugabakoa ezkutatuz
mundura iristen dena.

[DANTZA]

Desde mis ojos insomnes 770
mi muerte me está acechando,
me acecha, sí, me enamora
con su ojo lánguido.
¡Anda, putilla del rubor helado,
anda, vámonos al diablo! 775

Nire begi logabeetatik 770

nire heriotza neuri barrandatzen ari,
kirik egiten dit, bai, maitemindu egiten nau
bere begi mengelarekin.

Ea, ahalke izoztuaren putaxka hori,
tira, goazen infernura! 775

Índice

Lleno de mí, sitiado en mi epidermis	22
¡Mas qué vaso –también– más providente!	26
Pero en las zonas ínfimas del ojo	34
¡Oh inteligencia, soledad en llamas	46
Iza la flor su enseña	50
En el rigor del vaso que la aclara	56
Pero el vaso en sí mismo no se cumple	60
Mas la forma en sí misma no se cumple	64
En la red de cristal que la estrangula	72
¡Tan-tan! ¿Quién es? Es el Diablo	92

Aurkibidea

Nitaz beteta, nire azalean hesituta	23
Baina zein ontzi –baita ere– hain errekaitezalea!	27
Baina begiaren gune kaskarretan	35
Oi adimena, bakartasuna garretan	47
Loreak bere zutoihala goratzen du	51
Bera argitzen duen ontziaren zehaztasunean	57
Baina ontzia bera ez da gauzatzen	61
Baina eitea bera ez da egikaritzen	65
Bera itotzen duen kristalezko sarean	73
Kax-kax! Nor da? Deabrua da	93

Idatz & Mintz
Literatur atalen sorta
aldizkariaren
47. zenbakiko separata

IDATZ & MINTZ LITERATUR ATALEN SORTA
ALDIZKARIAREN SEPARATAK

- 3-4 zenb. (1982). *Poema batzu*. Li Po; itzulpena Joseba Sarrionandia
- 15 zenb. (1988). *Cathay: Poemak*. Ezra Pound; itzulpena Javier Kalzakorta
- 18-19 zenb. (1989). *Ez zaitetz Gernikara joan, Lauaxeta*. Eusebio Erkiaga
- 25 zenb. (1998). *Bizkaitar zarrak eta erromatarrak*. Felipe Arrese Beitia
- 28 zenb. (1999). *Oi, hondarrezko emakaitz!* Miren Agur Meabe
- 30 zenb. (2000). *Tagen Atarako itzulera*. X.L. Méndez Ferrín; itzulpena Andres Urrutia
- 31 zenb. (2001). *Bettiri Santsen balentriak*. Jabier Kalzakorta
- 33-34 zenb. (2001). *50 olerki gandiagatar*. Bitoriano Gandiaga
- 37 zenb. (2003). *Nabarra*. C. Day Lewis; itzulpena Luigi Anselmi
- 42 zenb. (2006). *Abd El Kader*. Txomin Peillen
- 43 zenb. (2007). *Neurtitzak*. Eusebio Erkiaga
- 45 zenb. (2008) *Hizunigu*. Mikel Zarate
- 46 zenb. (2008) *Itzulerarik gabeko txartelak*. Amaia Iturbide
- 47 zenb. (2009) *Muerte sin fin / Amaibako heriotza*. Jose Gorostiza; itzulpena Josu Landa

